

## **EUSKARALDIA. 11 EGUN EUSKARAZ. AZAROAREN 23tik ABENDUAREN 3ra**

### **Zer lortu nahi dugu?**

- Euskal Herrian euskara ulertzen duen jendea pentsatzen duguna baino gehiago dela jabeaztea eta euskara gehiagotan erabili dezakegula ikusaraztea.
- Hizkuntza ohiturak aldatzea norberaren hautua eta ariketa izan arren, bidea taldean eta batera, erosoago eta lagunduago egitea.
- Euskara erabiltzeko testuinguru eta egoera berriak, abegikorragoak eta babestuagoak sortzea.
- Gure harremanetan hizkuntzarekin ditugun inertziak astintzea eta uste baino gehiagotan euskarazko komunikazioa posible dela frogatzea.

### **Nola egingo dugu?**

Hamaika egunez euskaldunok ulertzen duten pertsona ororekin euskaraz harremanatuko gara. Honez gain, gure lehendabiziko agurra beti euskaraz izanen da ezagunekin zein ezezagunekin.

Ulertzen dutenek euskaldunei euskaraz hitz egitea eskatuko diete.

**Izena eman nahi duzu?** Bakarrik pentsatu behar duzu zein rol aukeratu nahi duzun.

**Ahobizi:** Ulertzen duenari euskaraz egingo diot, hark erderaz entzun arren. Ezezagunei lehen hitza, gutxienez, euskaraz egingo diet.

**Belarriprest:** Egin euskaraz, nik ulertzen dut eta. Agian erderaz erantzungo dizut, baina egidazu euskaraz.

Izena emateko bietako bat hautatu behar duzu. Dena dela, euskaltegian beste rol bat proposatzen dugu (beste toki batzuetan bezala): Bihotzgoxo. Bihotzgoxo ulertu eta hitz egiten ez dakitenentzat da. Halere, pozik hartuko dute zure ingurukoak euskaraz aritzea, ulertu ez arren.

